

Erdialdea

Gabon kantuak

Amara Zaharra

IRUTXULO

Hilaren 23an Artzai Onaren katedralean arratsaldeko 17.30etan, "Gabonetako musika handia" izenburuko kontzertua egingo da.



Eresmin Donostiako abesbatzan 22 lagun ari dira.

Satza gogoan

Hilaren 31n, San Silbestre lasterketa egingo da Donostian. Haritza elkarteak antolatzen du aipatu lasterketa Alejandro Auzmendi "Satza" elkarteko kidearen omenez. Auzmendi antiguatarra duela hamabost urte hil zuen Guardia Zibilak. Lasterketa Antiguan hasi (tren geltokiarren aurrean) eta Easo enparantzan amaituko da. Antiguan omenaldi beroa egingo zaio Alejandro Auzmendiren familiari.

bi taldek hartuko dute parte aipatu kontzertuan: Donostiako Eresmin abesbatza eta Israeleko Kfar Sirkin izenekoak. Israeldarrak aurki Espainiako Estatuan bira egitekoak dira. Taldeak Israeleko folka jorratzen du.

Bestalde, Eresmin abesbatzan 22 lagun ari dira. «Mirakruz gainako Santa Cruz elizan entseiatzen dugu. Ez dugu lehiaketetara joatea atsegin. Gure estiloa oso bestelakoa da. Jaialdietan espezializaturik gaude», adierazi di-

gu taldeko zuzendari Nekane Lasartek. Berak armonizatu ditu larunbatean entzun ahal izango diren abestietako batzuk. Bi talde ari dira abesbatzan: mistoa eta emakumez osatutakoa. Larunbatean talde mistoa ariko da.

Martutene



Tailerrak nagusi

datozen egunotan Martuteneko gazte lekua goizeko 10.00etatik aurrera egongo da zabalik. Gazte lekuak gabonetako egitarau berezia antolatu du. Hilaren 27 eta 28an, serigrafia eta makilajea landuko dira.

Hilaren 27an, gainera, eskia-tzera joko dute bertako gazte-txoek. Hilaren 29an, karsetan ibiltzera joango dira. Irteeraren truke 1.200 pezeta ordaindu beharko dira. Bestelakorik ere izango da, esaterako, "Futbol 7" txapelketa.





OIHALAK, KONPONKETAK, JANTZIGINTZA

Vitoria-Gasteiz 4,
(Antiguako anbulategiaren atzean)
20008-Donostia
Tel.: 943-31 50 65

PERFUMERIA

QUKERA

OPARIAK

Matia 15 • ANTIGUA • ☎ (943) 21 69 62

Sukalde altzariak

EGURRA

Donostia

Erakusketa: San Frantzisko 12 • Tel.: (943) 281098 • DONOSTIA
Fabrikazioa: Sukalde Altzariak • IBARRA • Tel.: (943) 691273 • ZIZURKIL